


ASKATASUN BEGIRADAK



GARCIA
LORCA
PARKEA



Pertsonen arteko harremana mota askotakoa izan daiteke, eta ohikoa den hitzen bitartez ez ezik, keinu, gorputz hizkera eta begiradaren bitartez ere gauzatzen dugu komunikazioa, eta gu geu garen bezala agertzen gara besteen aurrean.

Begiradaren bitartez pertsonen izaera ezagutzeko parada ezin hobea dugu. Neurri handi batean begi-bistan dugunaren aurrean geure jarrera ere agertzen dugu, eta elkar ezagutzeko balio du. Alaitasuna, tristura, zorrotasuna, ezinegona, aldekotasuna, haserrea... hori guztia agertzen ahal dugu hitz bakar bat ere erran gabe. Era berean, ezin dugu ahaztu begiradek eta keinuek berebiziko garrantzia izan dutela, eta badutela gaur egun, elkar ezagutzeko eta harremanak izateko, ligatzeko tresna ere baitira.

2015. urtean ALDARTE eta EHGAM taldeek "Memoria ausartak" proiektua aurkeztu zuten, LGTB memoria historiko kolektiboa berreskuratzeko gunea. Berton, 13 bizitza istorio aurkezten dira, eta frankismo eta trantsizio garaiko bizitza eta maitasun gay-lesbianoko istorioak biltzen dira. LGTB memoria historikoa aldarrikatzeko eta biltzeko gune horretan homofobia eta lesbofobiaren aurka borrokatzen da, gaur egungoarekin erlazionatua dagoen ezagueraren bitartez.

Egungo gazteek nola ikusten eta nola baloratzen dute genero eta aniztasun afektibo sexuala? Garbi dago euren begirada eraikitzen ari direla, beti ere bizipen propioetatik abiatu. Baina non gauden ulertuko badute, azken hamarkadetan hainbat eremutan eman den borrokari esker erdietsi direla eskubideak ezagutu behar dute.

Historiak erakutsi digu legeetan emandako aldaketak ez direla nahikorik izan berdintasunaren aldeko lorpenetan. Genero berdintasuna ez dugu erdietsi lege aldaketen bitartez, gaur egun oraindik ere ohitura eta jarrera matxistek bete-betean baitarraite. Halaber, gizarteak erakutsitako aniztasun sexualarekiko onespina, edota sexu orientazio ezberdinak erakusten dutenekiko berdintasun trataera ez da lortu azken urteotan legeetan egin diren aldaketen bitartez. Horretaz gain, jarrera aldaketa aldatu beharra dugu, aniztasunaren balioa azpimarratu, eta xede horretan hezkuntza funtsezkoa da.

Askatasun begiradak nahi ditugu gure eskoletan, gure kaleetan, gure gizartean. Hezkuntza sistemak askatasunean bizi diren pertsonak hezi behar ditu, diren bezalakoak izan daitezen, diskriminaziorik gabe, epaiturik izan gabe.

Genero eta aniztasun afektibo sexuala modu askean bizitzen laguntzeko unitate didaktikoa da hau. Jarduera gehienak Lehen hezkuntzatik hasita egiten ahal ditugu ikasleekin, baina bigarren hezkuntzan bestelako sakontasunean heltzeko aukera dugu. Ez dugu tolerantzia lantzerik nahi, ez baitugu besteen epairik nahi norberaren generoaz, genero adierazpenaz, edo maitatzeko eraz; askatasun gizartean bizi nahi dugu, gizarte askatzailean.



LGTBIQ TALDEA
2016ko udaberria

HELBURU OROKORRA

Gure gizartean dagoen eta izan den aniztasunarekiko jarreraz ohartzea norbanakoaren mailan zein talde mailan.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- * CLGTBI komunitatearen memoria historikoaren zertzeladak ezagutzea.
- * Genero eta aniztasun afektibo-sexualaren aldeko jarrera aktiboa lantzea.
- * Homolesbikofobikoak diren egoerak identifikatzea, azaleratzea, eta horien kontra borrokatzea.
- * Estereotipoen aurrean jendartean sortzen diren jarrerak aztertzea diskriminazioa ekiditeko.
- * Ertsonen arteko harremanen aniztasunaz hausnartzea, dauden orientazio sexualak ezagutzuz.

GAITASUNAK

- * Gizarte eta hiritartasunerako gaitasuna
- * Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- * Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- * Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

EDUKIAK

- * Estereotipoak.
- * Genero eta aniztasun afektibo sexualaren ezagutza.
- * Informazio bilaketa eta azterketa.
- * Besteen iritziekiko begirunea.
- * Bideoen informazioaren azterketa.
- * Berdintasun harremanak.
- * Elkarrekin lan egiteko jarrera eta lankidetzak.

JARDUERAK

I. ASKATASUN BEGIRADAK

Materiala:	Unitatearen azala.
Denbora:	3-4 saio
Taldekatzea:	Binaka, talde txikia, talde handia.
Lanketa:	Lehen Hezkuntza / Bigarren Hezkuntza

LEHENENGO SAIOA. ZER IKUSTEN DUGUN, NOLA IKUSTEN DUGUN

Garapena:

1. Ikasleak binaka jarriko dira. Tarte txiki bat hartuko dute nor bere begirada kartelari eman diezaion. Ondoren, bikotekide bakoitzak elkarri azalduko dio zer dakusan afixan.
2. Afixaren leloaz galdetuko dugu: askatasunaren begiradak. Zer esan nahi ote du?
3. Talde handian bikoteek karteletik ateratako egoera bana aukeratuko dute. Bat-batekotasuna landuko dugu, prestatzeko tarterik eman gabe. Ondoren, denen aurrean azalduko dute. Gainontzeko ikaskideek zerbait erantsi nahi badute, aukera eman.
4. Afixan agertzen diren pertsonak deskribatu eta euren bizitza asmatu: izenak, nolakoak diren, noiztik dauden elkarrekin, nola ezagutu zuten elkar... Ahoz edo idatziz egiten ahal da ariketa hau. Idatzita eginez gero, ikasgelan/pasabidean ikusgai jartzeko aukera aztertu.

BIGARREN SAIOA. BESTEEN BEGIRADAK

Hainbat bideo ikusiko ditugu.

1. bideoa: **Por el derecho a la Indiferencia** (0,31'). **IKUSI**
 - a) Ikusi baino lehen. Ikasleei bideoaren istorioa kontatuko diegu: adineko bi emakume parke batean daude eserita. Euren aurretik bi mutil gazte eskutik helduta pasako dira. Zein ote da emakumeon erantzuna? Ariketa talde handian edo talde txikian egiten ahal da.
 - b) Ikusi eta gero: Honelako erreakzioa espero zenuen? Zergatik? Bi neska izan balira, berdin erantzungo zutela uste duzu?
 - c) Ohikoa izaten da sexu bereko bi pertsona eskutik helduta ikustea? Zergatik?
2. bideoa: **Reacción de un niño frente a una pareja gay** (1,07'). **IKUSI**
 - a) Ikusi baino lehen. Ikasleei bideoaren muina kontatuko diegu: eskola bateko haur txiki batek sexu bereko bikotea ezagutu berri du. Zein ote da haren erreakzioa?
 - b) Ikusi eta gero: Honakoa galdetuko diegu: zer iruditu zaizue haurraren erantzuna? Espero zenuten? Zergatik?
 - c) Sexu bereko lehenengo bikotea ikusi zenuenean, zein izan zen zure erreakzioa?

3. bideoa: **Fijate Que... (Regálate un Minuto, El Salvador) Kali Naulia (2,39')**. **IKUSI**

a) Ezer esan gabe bideoaren lehen zatia ikusiko dugu (1,07'). Bideoan neska batek lagunei, amari eta ahizpari, "fijate que..." esaten die. Behin bideo zati hori ikusita, honakoa galdetuko diegu: Zuen ustez, zer esaten die? Nola erantzuten dute (lagunek, amak, ahizpak)?

b) Hasieratik ikusiko dute berriro bideoa. Neskak zer dioten idatziko dugu arbelean eta horren esanahiaz mintzatuko gara. Ikasleen adinaren arabera bideoan aipatzen diren beldurrez mintza daiteke.

4. bideoa: **El amor no tiene etiquetas (3,08')**. **IKUSI**

Bitan ikusiko dugu bideoa. Lehenengoan jarraian, eta bigarren aldiz ikusten dugun bitartean ingelesez agertzen diren leloak idatz ditzatela esango dugu, eta horretarako nahikoa tarterik emanen diegu, eta behar izanez gero, bideoa tarte batez geldituko dugu. Ingelesez edo euskaraz izanen dute idaztea.

5. bideoa: **Amor Gay-Las reacciones de los niños y niñas (2,46')**. **IKUSI**

Bideoaren akaberan honako esaldia agertzen da: "I bambini sano qualcosa che la maggior parte della gente ha dimenticato" (haurrek dakite jende gehienak ahaztu duen kontua) Keith Haring.



Keith Haring

Zer adierazi nahi izan zuen esaldi honekin?

Ikasleei artista honen gaineko informazioa interneten lortzeko eskatuko diegu: bizitzaren gaineko hainbat zertzelada eta haren obra.

6. bideoa: **kids react to gay marriage (15,58')**. **IKUSI**

Bideoak bi parte ditu: lehenengoan (38'') AEBetako hainbat haur genero bereko ezkontzez mintzo dira. Bigarreanean gertatutakoaz galdetu zaie, lgtbi pertsonen eskubideez, diskriminazioaz, balizko lgtb lagunez, adopzioaz...

Azken bi bideoak profitaturik, ikasleek LGTBiren gaineko inkesta txiki bat prestatuko dute. (zein jarrera duten, ea LGTBI pertsonarik ezagutzen duten...). Bideoetan ikusi dituzten galderak ere izaten ahal dira. Ikastaldea bitan edo lautan banatuko da, eta talde bakoitzak hainbat galdera prestatu.

Ondoren, bikoteka elkartuko dira, bikotekide bakoitza talde diferente batekoa delarik. Bertze aukera bat da ondoko taldeko ikaskideei egitea inkesta.

Galderak elkarri egin ostean, taldera itzuliko dira eta jasotako erantzunak komentatuko dituzte.

Oharra: aukera paregabea dugu irakasleok erantzun horietan ikasleen iritziak ezagutzeko, eta euren jarrerak ebaluatzeko.

7. bideoa: **HollySiz. The light [Clip oficial] (3,52')**. **IKUSI**

Bideo osoa ikusiko dugu

Prestaremos atención a sus reacciones mientras visualizan la historia que se relata.

Ondoren, bideoan ikusitakoaz mintzatuko gara.

Bideo sorta ikusi ondoren, Hurrengo saioetara jo baino lehen LGTBI zer den galdetuko diegu. Jakin ezean, azalduko dugu.

LGTBIQ: lesbiana, Gay, Trans...

Ikusi **steilas**en [genero eta aniztasun sexualerako gidaliburua](#)



II. LEHENGO ETA ORAINGO BEGIRADAK

Materiala:	Begirada ausartak video / testuak (aukeran). Artaziak, kartoia (edo papera), Argazki- kamera, Internet.
Denbora:	3 - 4 saio.
Taldekatzea:	Binaka, talde txikia, talde handia.
Lanketa:	Lehen Hezkuntza / Bigarren Hezkuntza

I. SAIOA. BEGIRADEN GARAPENA

Arbelean honakoa idatziko dugu:

Zertan aldatu da azken urteotan LGBTI pertsonetako begirada? Nola ikusten zuten lehen?

- Begirada ausartak proiektua zer den azalduko diegu ikasleei (unitate didaktiko honen aurkezpenean dago informazio hori, hirugarren paragrafoan) . Ondoren, [bideoa](#) ikusiko dugu (14 minutu). Ikusi ondoren, zerk harritu dituen gehien aipatuko dute.
- Inkesta bat prestatu ikastetxeko kanpoko hainbat pertsonari egiteko (amona-aitonei, amari, aitari, dendariari...?) esparruak denon artean zehaztuko genituzke, baina behan dugu lagungarria suerta dakizukeen taula.

Oharra: Lehen Hezkuntza, nahiago izanez gero, lehenengo eranskinean idatzita daude galderak erabil daitezke.

Esparrua	Lehen	Orain
Legeetan berdintasuna		
Kalean bisibile izateko aukera		
Ikastetxean bisibile izateko aukera		
Eliza katolikoaren jarrera / beste erlijioen jarrera (zehaztu zein, ikasleen ezagutzaren arabera)		
Familia barruko onarpena		
Telebistan		
Gizartean orokorren onarpena		
Beste hainbat lurraldetan (ikasleen familien jaioterria)		
...		

2. SAIOA. KOMUNEAN JARRIKO DITUZTE ERANTZUNAK

Euskaraz aurkaritza azaltzeko lokailuak landu ditzakegu: ordea, aldiz, aitzitik, ostera, alta...

Ikasleei nola irudikatzen duten etorkizuna galdetuko diegu: Nolakoa izango ote da etorkizunean? Beste zutabe bat gehituko dugu, haiek euren iritzia emateko.

LGTB mugimendua iruditan. <http://ovejarsa.com/las-imagenes-antiguas-mas-hermosas-del-amor-homosexual/> webguneko irudiak ikusiko ditugu. Haiek gaurko irudiak interneten bilatuko dituzte eta alderatuko dituzte.

Bideo honetan jasota daude [begirada ausartak](#).

3. SAIOA. HITZA JOLAS

Nolako begiradak ezagutzen ditugu?

Beldur, kuriositate, poztasun,
tristura, ausardi, lotsa

Begirada...



Begirada...
ausarta, askatzailea, sakona

- Hiztegia denon artean osatuko dugu ahoz.
- Binaka jarri eta aurrekoak landu (10'). Bikotekide batek esango du "tristura begirada" eta pare-parean dagoen kideak hori "antzezten, irudikatzen" saiatuko da.
Adibidez: jarri begirada alaia; orain jarri lotsa begirada...
- Nolako begiradak ditugu? Argazki bana egiten ahal diegu ikasleen begiradei. Horretarako kartoi batean lauki luzea moztuko dugu begien aldean, aurpegiaren gainontzeko atalak ez ikustearren. Ondoren ikasgelan jarriko ditugu argazki bakoitzak bere zenbakia duela. Ea asmatzen duten norenak diren begi horiek eta zer adierazten duten.



4. SAIOA. MEMORIA HISTORIKOA

Bigarren Hezkuntzan

1. jarduera: LGTBI komunitatearen memoria historiko hurbila.

Horretarako, XX. mendean indarrean izan ziren legeen gaineko informazioa lortzeko eskatuko diegu ikasleei: Ley de Vagos y maleantes / Ley sobre peligrosidad y rehabilitación social.

Behin hori ikusita, euren erkidegoan LGTB pertsonen eskubideak biltzen dituen legerik ba ote den bilatuko dute.

2. jarduera: Genero ikuspuntua

Emakumeek bizi izan duten egoerari aipamen berezia eginen diogu. Beheko bideotako bat ikusiko dugu klasean, eta bideo osoa ikusi ondoren, ikasleak gehien harritu dituenaz mintza daiteke klasean.

A aukera: Memoria y sexualidad de las mujeres bajo el franquismo (7,41'). [Ikusi](#)

B aukera: Mujeres bajo sospecha (memoria y sexualidad 1930–1980). [Ikusi](#)

III. BEGIRADA ASKATZAILEAK

Materiala:	Kartulina, orri handia...
Denbora:	Hautatutako jardueraren arabera.
Taldekatzea:	Talde txikia, talde handia.
Lanketa:	Lehen Hezkuntzan / Bigarren Hezkuntzan.

I. JARDUERA. LGTBI IKASTETXEAN

Honakoa idatziko dugu arbelean:

- * Gure ikastetxean badago LGTBIQ pertsonarik?
- * Zer egin ahal dugu ikastetxean pertsona guztiak aske senti daitezen euren genero edo eredu afektibo sexuala edozein delarik ere?

Talde txikitan antolatuko dugu ikastaldea. Behin tarte egoki bat emanda, talde bakoitzean bozeramale izendatu dutenak taldean jasotako ideiak aipatuko ditu gainontzeko ikaskideen aurrean.

Ideiak arbelean idatziko ditugu. Ondoren, zein den egingarria ikusiko dugu.

II. JARDUERA. ASKATASUNAREN ALDE

Kontuan izanen ditugu aurreko jardueran agerturiko proposamenak.



A aukera: Talde argazkia. Betaurrekoak diseinatuko ditu ikasle bakoitzak, askatasun betaurrekoak. Behin betaurrekoak eginda, talde osoari argazkia eginen diogu. Ondoren, ikasleen artean askatasunaren edo berdintasunaren aldeko lelo bat asmatuko dute argazkiari jartzeko. Ikasgelan edo pasabidean jarriko dugu argazkia tamaina handian.

V aukera: ASKATASUN BEGIRADAK proiektua. Genero eta aniztasunaren aldeko lan bat egitea da helburu nagusia, eta mota askotakoa izan daiteke: argazkiak, collage, marrazkiak.. Ikastetxe mailan (edo hainbat taldetan batera) egiten bada, zehazten ahal da noiz egin erakusketa komuna ikastetxean edo euren pasabidean jarri eta ikastetxeok gonbidatu ikustera. Era berean, aurreko jarduera bateran ikasleek asmatutako leloak, edo klasean agertu diren ideiak gara ditzakegu.

III. JARDUERA. FEDERICO GARCÍA LORCA

Unitatearen kontrazala ikusiko dugu. Poeta handiaren berri ba ote duten galdetuko diegu. Ondoren, hainbat informazio lortuko dute: bizitza, obra, eta heriotzaren arazoia.

IV JARDUERA. LGTBIQ TALDEAK

Unitateari bukaera eman baino lehen LGTBIQ talderik ezagutzen ote duten galdetuko diegu ikasleei. Ahal izanez gero, talderen bateko kide bat klasera/ikastetxera gonbida genezake iraganaz, orainaz eta etorkizunaz mintzatzearren. Bisitaldia baino lehen, ikasleek galdera batzuk prestatzea komeni da.

EBALUAZIOA

Aurreneko jarduera hasierako ebaluaziorako erabiliko dugu. Modu horretan gure ikasleen ezagutzaz ohartuko gara eta indarra non jarri jakingo dugu.

Unitatea lantzen den bitartean etengabeko ebaluazioa egingo da, besteak beste, behean aipatzen diren teknika eta tresnak erabiliz, eta agertzen dituzten jarrerei erreparatu beharko diegu bereziki (irriak, lotsak...), beti ere ahaztu gabe sortzen duten diskurtsoaren koherentzia maila (egia diote?, askatasun giroan mintzo dira?).

Behin Unitatea bukatuta, egindako lana baloratuko da markatutako irizpideei jarraituz.

Ikasleek ere beraien autoebaluazioa eta unitatearen ebaluazioa egin dezakete.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo dugu, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu dugun gela, denbora, ikasleak motibatuta egon diren... Informazio hau guztia baliagarria izan dakiguke hurrengo baterako, hots, unitatea beste talde batean lantzen dugun behar bezalako egokitzapenak egin ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak

- ★ Ea gaiaren garrantziaz jabetzen diren.
- ★ Ea aniztasun afektibo sexualaz hitz egitean eroso sentitu ote diren.
- ★ Ea jendartean eman/ematen den bazterkeriaz ohartzen ote diren.
- ★ Ea talde lanetan errespetuz lan egiten duten.

Ebaluaziorako teknika: Behaketa.

Ebaluaziorako tresnak:

- ★ Irakaslearen egunerokoa. Bertan unitatearen garapenean zehar bakoitzaren lanaren balorazioa eta ekarpenak jasoko dira.
- ★ Egindako lana(k)

Ikasleen unitatearen ebaluazioa Elkarrizketarako gidoia:

- ★ Zer gustatu zaien gutxien eta gehien eta zergatik.
- ★ Zer ikasi duten.
- ★ Zerk harritu dituen gehien.
- ★ Zer aldatuko luketen.

Bi motako ebaluazioak eginen ditugu: norbanakoarena eta taldearena

Lehen norbanakoarena eginen dugu (izena idazteko aukera emanez); ondoren taldearena.

1. Zer iruditu zaizu interesgarri Unitatean?
2. Zer gustatu zaizu gehien? Eta zer gustatu zaizu gutxien?
3. Ezer ikasi duzu Unitatea landu dugun bitartean?

Erantzun orriak jaso ondoren, taldearen ebaluazioari ekinen diogu. Galderak berberak erabiliko ditugu, eta tarte bat emanen zaie euren erantzunak taldearen aurrean agertzeko.

BALIABIDEAK

DOKUMENTAZIOA

- ✦ Begirada Ausartak. [Lotura](#)
- ✦ Aniztasun afektibo sexualaren aurreko jarrerak ikasgeletan (2013/2014). [Lotura](#)
- ✦ Genero eta aniztasun sexuilerako gidaliburua. **steilas** 2015. [Lotura](#)

FILMAK ETA DOKUMENTALAK

- ✦ Pride. [Trailer](#)
- ✦ Las aventuras de Priscilla. [Trailer](#)
- ✦ Stonewall. [Trailer](#)
- ✦ Las cosas del querer. [Trailer](#)
- ✦ Les Invisibles. Film de Sébastien Lifshitz [Bande annonce](#) [Osoa frantzesez](#)
- ✦ Les tristes lendemains du mariage gay [\(Entier\)](#)


BESTERIK

- ✦ EHGAM. Madelon sariak. Gazteentzako literatura lehiaketa. [Ikusi](#)
- ✦ Gozamenez. Laburmetrai lehiaketa. [Ikusi](#)

I. ERANSKINA

LEHENGO ETA ORAINGO BEGIRADAK

	Lehen	Orain
Legeetan berdintasuna Legeek berdintasuna bermatzen zuten? Ezkontzeko aukera zuten bi gizonak edo bi emakumeak? Orain berdintasuna bermatzen dute legeek? Ezkontzako aukera dute bi gizonak edo bi emakumeak?	_____ _____ _____ _____	_____ _____ _____ _____
Kalean bisible izateko aukera Lehen kalean bi gizon edo bi emakume eskutik helduta joan ahal ziren? Orain kalean bi gizon edo bi emakume eskutik helduta joan ahal dira?	_____ _____	_____ _____
Ikastetxean bisible izateko aukera Nola ikusten ziren lehen ikastetxean lesbianak, homosexualak, edo transexualak? Nola ikusten dira orain ikastetxean lesbianak, homosexualak edo transexualak?	_____ _____	_____ _____
Eliza katolikoaren jarrera / beste erlijioen jarrera Eliza Katolikoak nola ikusten zuen sexu bereko pertsonen arteko harremana? Eliza Katolikoak nola ikusten du sexu bereko pertsonen arteko harremana? ...	_____ _____ _____	_____ _____ _____
Familia barruan onarpena Familietan lesbianismoa, homosexualitatea edo transexualitatea ondo ikusita zeuden? Orain familietan lesbianismoa, homosexualitatea edo transexualitatea ondo ikusita daude?	_____ _____	_____ _____
Telebistan LGTB pertsonarik ateratzen zen telebistan? Orain LGTB pertsonarik ikusten da telebistan?	_____ _____	_____ _____
Gizartean orokorren onarpena Lehengo gizartean nola zegoen ikusita homosexualitatea? Eta lesbianismoa? Eta transexualitatea? Orain nola dago ikusita homosexualitatea gizartean? Eta lesbianismoa? Eta transexualitatea?	_____ _____ _____	_____ _____ _____
Beste hainbat lurraldetan (ikasleen familien jaioterria) Zure familiaren jaioterrian nola zegoen ikusita homosexualitatea? Eta lesbianismoa? Eta transexualitatea? Orain nola daude ikusita? ...	_____ _____ _____	_____ _____ _____



OLERKIGINTZAK EZ DU
JARRAITZAILERIK NAHI,
MAITALEAK NAHI DITU.

Federico García Lorca
(1898 – 1936)

